

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Iñigo Etxezarreta Toca

*Donostia,
Gipuzkoa
(1995)*

Aurkibidea



Biografia



Grosen jaioa, Zurriola ikastolara joan zen. Kortxoenea gaztetxean ibili zen, besteak beste Ernai taldean, eta bertan hasi zen feminismoan murgiltzen. Gizarte Hezkuntzan graduatua, Eihera kooperatiban egiten du lan, hezkidetzan eta maskulinitateen lanketan, eraldaketa feminista eta LGBTBI+ prozesuak diseinatzen.

Zintak

DON-204

- **Proiektua:** Gazte gara gazte
- **Elkarrizketatzailea(k):** Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2021-05-12
- **Iraupena:** 100 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

Pasarteak

1. Zurriola ikastolako bizipenak

- **Erref:** DON-204/002
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 00:02:00. **Bukatu:** 00:06:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Ikastolak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGBTBIQ+

Laburpena:

Zurriola ikastola sozializaziorako gun e osoa izan zela dio, baina gizartean gertatzen den moduan, botere-harremanak oso presente zeudela. Ez zuen bizipen traumatikorik izan, baina armairuan gordetzen zen. Berak ez zuen beste mutilek bezala hitz egiten emakumeen gorputzei buruz.

2. Sexu-orientazioa ezin libreki adierazi, heteroarauarengatik

- **Erref:** DON-204/004
- **Iraupena:** 0:02:36. **Hasi:** 00:07:13. **Bukatu:** 00:09:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBQI+

Laburpena:

Umetan ez zeukan erreferentziarik. Oso bide bakartia izan zen. Berak oso argi zeukan txikitatik bere sexu lehentasuna zein zen. Ez zeukan zalantzarik bere baitan, baina arau bat zegoen inguruan eta bazekien hortik ateratzeak zigorra ekarriko ziola.

3. Gaztetxotan, maskulinitate lehia lagun artean

- **Erref:** DON-204/005
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:09:49. **Bukatu:** 00:11:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Oroitzapena dauka lagunekin aspertu egiten zela: futboleak jokatu eta nesken gorputzen inguruan komentarioak egitea, maskulinitate lehian, ez zitzaion gustatzen.

4. Emakume feministak Kortxoenean

- **Erref:** DON-204/006
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:11:53. **Bukatu:** 00:14:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Gazteendako lekuak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Kortxoenea Gaztetxean parte hartzen hasi zenean, ez zeukan kontzientziarik ez-bitar bezala sozializatzek zeukan potentzial politikoaz. Ereku heteroarautua izan arren, harremanak ez ziren hain maskulinizatuak. Emakume feminista helduago batzuk ere bazeuden, eta haien proposamenekiko interes handia piztu zitzaion.

5. Heteroarautik kanpo nola kokatu ikasten

- **Erref:** DON-204/007
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:14:15. **Bukatu:** 00:17:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Ernai gazte antolakundea sortu eta berehala, prozesu feminista oso sakona egin zuten, eta gauza askotaz konturatu zela dio. Mutilekin egin beharreko lanaketak diseinatzeko hasi zen. Hor ezagutu zituen bere erreferentziak,

emakume feministak. Heteroarautik kanpo kokatzeak zer suposatzen zuen ikasi zuen.

6. Feminismoan gizonak?

- **Erref:** DON-204/008
- **Iraupena:** 0:03:36. **Hasi:** 00:17:50. **Bukatu:** 00:21:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gizonak eta feminismoaren gaia puri-purian dagoela dio. Ez du bere burua mugimendu feministako subjektu moduan ikusten. Zergatia azaltzen du. Feminismoa zapalkuntza guztiei aurre egiteko mugimendua dela dio. Feminismoa ez da matxismoaren kontrako mugimendua.

7. Gizarte hezkuntza zertarako ikasi zuen

- **Erref:** DON-204/010
- **Iraupena:** 0:02:41. **Hasi:** 00:21:56. **Bukatu:** 00:24:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Goi mailako ikasketak

Laburpena:

Gizarte hezkuntza ikasi zuenean, uste du bazeukala ikuspegi paternalista bat; jendea salbatzeko balioko ziola uste zuen. Eztabaida oso interesgarriak konpartitzea zuen helburu. Beste alde batetik, interesatzen zitzaizkion errealitate batzuk ezagutzearen ere aukeratu zuen.

8. Ordainsariak sortzen dituen botere-harremanak

- **Erref:** DON-204/011
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:24:37. **Bukatu:** 00:27:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Ikusten zuen gizartean zapalkuntza asko zeudela eta gizarte hezkuntza karrera ikasita, horiek limatu ahalko zituela uste zuen. Ordainsaria jasotzeak batzuekiko botere-harremana sorrarazten du.

9. "Eihera" kooperatiba harreman horizontalagoak lantzen

- **Erref:** DON-204/012
- **Iraupena:** 0:03:38. **Hasi:** 00:27:49. **Bukatu:** 00:31:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak
- 101L » Migrazioak

Laburpena:

<p>"Eihera" kooperatibaren lana zein den azaltzen du. Beraiek sortu duten dinamikak parte hartzaileekiko harremanak horizontalagoak izatea eragin du. Gazte migranteen harrera etxe batean lan egin zuenekoak kontatzen du.</p>

10. "Marika" eta "queer"

- **Erref:** DON-204/013
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:31:27. **Bukatu:** 00:35:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBIQ+

Laburpena:

Bere sexu lehentasuna argi izan du beti. Gehienetan marika bezala sozializatzen da. Batzuetan genero sistema bitarrarekiko disidentzia agertzen saiatzen da estetikaren bitartez. "Queer" etiketan sartzen dela azaltzen du.

11. Gizartearen biolentzia sentitu

- **Erref:** DON-204/014
- **Iraupena:** 0:04:18. **Hasi:** 00:35:02. **Bukatu:** 00:39:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero indarkeria
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBIQ+

Laburpena:

Ez du eraso espliziturik jaso bere estetikarengatik, baina gizartearen biolentzia sentitu izan du, tentsioa eta beldurra bizi izan dituelako.

12. Zer da LGTBIQ+ kolektiboa?

- **Erref:** DON-204/016
- **Iraupena:** 0:03:54. **Hasi:** 00:40:12. **Bukatu:** 00:44:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBIQ+

Laburpena:

LGTBIQ+ zer den azaltzen du. Heteroarautik kanpo kokatzen denarentzat babesgune, bilgune edo identifikazio gunea dela dio. Etiketak diskurtso baten parte sentitzeko tresna dira.

13. LGTBIQ+ siglak banan-banan

- **Erref:** DON-204/019
- **Iraupena:** 0:03:27. **Hasi:** 00:45:59. **Bukatu:** 00:49:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBIQ+

Laburpena:

LGTBIQ+ siglek zer esan nahi duten azaltzen du, banan-banan. L (lesbiana), G (gay), T (trans) eta B (bisexual) azaltzen ditu.

14. LGTBIQ+ siglak banan-banan II

- **Erref:** DON-204/020
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:49:26. **Bukatu:** 00:53:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBIQ+

Laburpena:

LGTBIQ+ sigletako "I" (intersexuala) eta "Q" (queer) azaltzen ditu.

15. LGTBIQ+ siglak banan-banan III

- **Erref:** DON-204/021
- **Iraupena:** 0:01:50. **Hasi:** 00:53:30. **Bukatu:** 00:55:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBIQ+

Laburpena:

LGTBIQ+ sigletako "+" ikurrak biltzen duena azaltzen du.

16. Estereotipoak eta irainak gainditzeko

- **Erref:** DON-204/022
- **Iraupena:** 0:03:50. **Hasi:** 00:55:20. **Bukatu:** 00:59:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBIQ+

Laburpena:

"Bollera", "marika", "puta" eta antzeko hitzak erabiltzeak estereotipo batzuk eta irainak gainditzeko erabiltzen dira.

17. LGTBIQ+ kolektiboaren aldarri komunak

- **Erref:** DON-204/023
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 00:59:10. **Bukatu:** 01:03:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » LGTBIQ+

Laburpena:

LGTBIQ+ kolektiboa babesgune bat da baina aniztasun handia dago. Heteroarauak eragiten duen bortizkeriaren kontra egitea aldarri komuna da, baita genero identitatea aske, duin eta prozesu zigortzailerik gabe bizitzea ere. "Trans" legea bera aldarri nahiko komuna dela dio. Sistema kapitalista heteropatriarkatua desagitea ere izan daiteke.

18. Cisheteropatriarkatua zer da?

- **Erref:** DON-204/025
- **Iraupena:** 0:02:51. **Hasi:** 01:03:34. **Bukatu:** 01:06:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Cisheteropatriarkatua zer den azaltzen du, hainbat ezaugarri aipatuz.

19. Mutil moduan sozializatzeak dakarrena

- **Erref:** DON-204/026
- **Iraupena:** 0:04:06. **Hasi:** 01:06:25. **Bukatu:** 01:10:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Mutil moduan sozializatzeak suposatzen duena aipatzen du: espazio publikoa hartzea, espektatiba eta asmoak ez direla zalantzan jartzen, zaintza lanak beraien gain ez geratzea, bortxatuko zaituen beldurrik ez edukitzea, lan-mundurako sarbidea errazagoa izatea, harreman afektibo-sexualetan boterea izatea... Maskulinitateak bortizkeria eta boterea suposatzen du askotan.

20. Neska moduan sozializatzeak dakarrena

- **Erref:** DON-204/027
- **Iraupena:** 0:01:10. **Hasi:** 01:10:31. **Bukatu:** 01:11:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakume moduan sozializatzeak suposatzen duena aipatzen du, gainetik, berak ez duelako bizi izan. Bortxatua izateari beldurra eta zaintzaren ardura.

21. Maskulinitateak boterea dakar

- **Erref:** DON-204/029

- **Iraupena:** 0:03:04. **Hasi:** 01:12:37. **Bukatu:** 01:15:41
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Maskulinitateak boterea suposatzen duela ulertzeko tailerrak egiten dituzte. Mutil moduan denak eraso eta indarkeria matxistaren parte eta erreproduzitzailerik izan direla azaltzen diete eta ardura hartu beharra azpimarratu. Maskulinitate berri edo ez-hegemonikoen alde zergatik ez dagoen azaltzen du.

22. Gizonen lana, esparru pribatua erabakiak hartzea

- **Erref:** DON-204/030
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 01:15:41. **Bukatu:** 01:18:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Feminismoan gizonak zein leku hartu behar duen eztabaidatzeko momentua ez dela dio. Gizonak eskatzen die esparru pribatua erabakiak hartzeko.

23. Feminismoak agerian jarri duena

- **Erref:** DON-204/032
- **Iraupena:** 0:01:24. **Hasi:** 01:18:49. **Bukatu:** 01:20:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Feminismoak lortu du lan ikaragarria egin ostean, mahai gainean jartzea zapalkuntza eta bortizkeria asko.

24. Gazteekin tailerrak feminismoa lantzeko

- **Erref:** DON-204/033
- **Iraupena:** 0:01:32. **Hasi:** 01:20:13. **Bukatu:** 01:21:45
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gazteekin egiten dituzten tailerretan, neskekin eta mutilekin ariketa ezberdinak egiten dituzte. Ikasgeletan batera daudenean, nesken ahotsak gutxiago entzuten dituzte.

25. Mutil gazteekin desboteretzea lantzen dute

- **Erref:** DON-204/034
- **Iraupena:** 0:02:21. **Hasi:** 01:21:45. **Bukatu:** 01:24:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Mutil gazteek desboteretzearena ondo hartzen dutela dio. Ardura hartzetik lantzen dute. Ikusarazi egiten diete zenbat egoeratan daukaten boterea emakumeengan.

26. Mikromatxismoa zer den

- **Erref:** DON-204/035
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 01:24:06. **Bukatu:** 01:25:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Mikromatxismoak ikusten ez ziren erasoak identifikatzeko helburua zeukan. Orain kontzeptua ez dela hainbeste erabiltzen azaltzen du.

27. Izebergaren metafora feminismoan

- **Erref:** DON-204/036
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 01:25:32. **Bukatu:** 01:27:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Feminismoan izebergaren metafora zertarako erabiltzen den azaltzen du.

28. Familia ereduak hizketagai gazteekin

- **Erref:** DON-204/038
- **Iraupena:** 0:02:20. **Hasi:** 01:27:55. **Bukatu:** 01:30:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Familia eredu desberdinak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Familia ereduak maitasun erromantikoaren gaiari lotuta lantzen dute, hausnarketaren bitartez.

29. Maitasun erromantikoaren mitoa

- **Erref:** DON-204/039
- **Iraupena:** 0:04:09. **Hasi:** 01:30:15. **Bukatu:** 01:34:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Maitasun erromantikoa zer den azaltzen du, adibide askoren bitartez.

30. Maitasun erromantikoa eta monogamia

- **Erref:** DON-204/040
- **Iraupena:** 0:01:54. **Hasi:** 01:34:24. **Bukatu:** 01:36:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Maitasun erromantikoak monogamia dauka oinarri. Bikotea izan arren, beste batzuekiko desira izatea naturala dela azaltzen du.

31. Maitasun erromantikoa eta lehentasunak

- **Erref:** DON-204/042
- **Iraupena:** 0:03:17. **Hasi:** 01:36:42. **Bukatu:** 01:39:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Maitasun erromantikoaren mitoak gazteengan berdintsu jarraitzen duela azaltzen du. Bikotekideari lehentasun handia ematea zilegi egiten du.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-03-16

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com